

Eñaut Totorikaguena Murgialdai
«Formula bateko pilotoa izatea gustatuko litzaidade»

# «Formula 1eko izarra»

## Formula 1eko izarra

Enekok bukatu zituen bere etxeko lanak. Ordenagailua pizteko irrikitan zegoen. Bere jokorik gustokoena F1eko lasterketa zen. Klik, Klik egin eta jokora sartu zen. Jokalarien artean onenetarikoa zen eta errekorrak hausten zituen. Enekok, beti kotxe berdina aukeratzen zuen, Ferrari taldeko kotxe gorri disdiratsua, hain zuzen ere, gurpil zabal eta sendoak zituena eta argi hori eta indar handikoak.

Enekoren kotxea hirugarren postuan zegoen, beste hogeiren artean. Gizon batek bandera bajatuz hasiera eman zion lasterketari. 3. biran zeudela Webberren kotxea aurreratu zuen, 2. postuan jarriz. Enekoren eta Vetelen kotxeak tituluaren bila zihoazen. Hori dela eta indar handiz sakatzen zuen azeleragailuaren tekla.

Bat batean dena ilundu zen, kotxea tunel barrura sartu zelako. Tunela luzea eta beltza zen baina kotxeak biztor jarraitzen zuen.

Tuneletik irtetzerakoan Enekok bere burua kotxe barruan ikusi zuen. Jantzi gorri estu bat zeraman, buruan kaskoa eta eskuekin tinko eusten zion bolanteari. Bere hankak azeleragailua zapaltzen zuen indarrez. Ziztu bizian zihoan.

Enekok ez zuen ezer ulertzen non zegoen bere etxeko jesarlekua, non zegoen bere ordenagailua. Irratitik "Come to pit lane" entzun zuen. Zorabiatuta zegoen. Konturatu gabe errebuelta barruan zegoen kotxea kontrolatu ezinik eta pistatik kanpo gelditu zen, 3 edo 4 buelta eman ondoren.

Berriro iluntasuna. Apurka-apurka begiak zabaldu zituen. Ez zen ezertaz gogoratzen, Ospitalean zegoen gorputz guztia minduta. Medikuak gertatutakoa azaldu ondoren ondo sendatu behar zuela adierazi zion.

Bi hilabete eman zituen Ospitalean guztiz sendatu arte, baina hala eta guztiz ere ez zen ezertaz oroitzen.

Berriro entrenamentuetara bueltatu zen, gogor arituz, ekin eta ekin Singapurreko lasterketa iritsi arte. Dena prest zegoen, kotxea eta baita bera ere. Hirugarren postuan zegoen sailkatuta.

Lasterketa egunean oso urduri zegoen, aurretik Vetel eta Button, atzetik Webber, Alonso, Hamilton eta Masa zituelako. Bandera jaitsi zenean ziztu bizian atera zen, Button atzean jarriz. Halako batean Button aurreratzea lortu zuen.

Bere aurrean Vetel zegoen eta hura gainditzea ez zen lan makala izango, baina azken momentuan aukera aprobetxatuz lehen postuan jarri zen.

Podiumean garaikurra altxatu ondoren txanpainarekin elkar bustitzen ari ziren. Enekok bere izena entzuten zuen urrutian. Dena beltz jarri zen berriro eta begiak zabaltzerakoan bere ama ikusi zuen, aurpegira ur tantak botatzen ari zela, hau esanez: Eneko! Eneko! esnatu, badirudi Singapurrun zaudela.





Maider Bengoetxea Regatos
«Nire zaletasunak: dantzatzea, abestea, trikitixa jotzea eta saskibaloian jolastea. Handitan zientzialaria izan nahiko nuke»

# «Osagai bila»

## OSAGAI BILA

Baziren behin bi sukaldari: Argiñano eta Pepe. Argiñano biétatik zaharrena izan arren oso jakintsua eta lasaia zen eta sukaldaritzari buruz asko zekien. Pepe oso tranpatia zen eta beti zegoen Argiñano nekarazten. Beraiek erregearentzat egiten zuten lan Arteagako gazteluan eta herriko tabernan.

Urte batean, krisia heldu zen Arteagako gaztelura, eta erregeak erabaki bat hartu behar izan zuen: sukaldarietako bat kaleratu behar zuen! Oso zaila zen, biak oso sukaldari onak zirelako. Azkenean, ideia bat bururatu zitzaion, eta sukaldariei esan zien. Froga bat egin beharko zuten: pastel bat egin beharko zuten baina pastel horren osagaiak "mundu magiko batean zeuden

Herrikoei ere esan behar zien. Hurrengo egunean zera entzuten zen kale guztietatik:
- Tu, tu, tu, tu! Herritar maiteak, entzun ondo erregearen mezua! Krisia dela eta, Argiñano edo Pepe, sukaldarietako bat kaleratu beharko du. Hoberena nor den jakiteko, froga bat egingo du:

Pastel bat egin beharko dute, baina ez edozein pastel, pastel honen osagaiak "mundu magiko" batean baino ezin dira aurkitu!

Hurrengo egunean mundu magikorantz abiatu ziren, baina... nola joango ziren? Pentsatu eta pentsatu, azkenean lortu zuten. Paellero magiko batean hegan joango ziren! Esan eta egin.

Txina igaro zuten, baita Amerika ere; Gero, espazioan, artizarra eta merkurio igaro ondoren, eguzki barrura sartu eta mundu magikora heldu ziren! Ti-ta batean bajatu ziren paellero magikotik. Mundu magiko hura liluragarria, harrigarria zen!

Ibili eta ibili, eta ibili eta .... azkenean bide gurutze batera heldu ziren: Bertan, txorimalo bat zegoen. Pepe eta Argiñano mundu magiko harekin liluraturik, txorimaloa ikusi ere ez zuten egin eta ez ziren konturatu txorimaloan zera jartzen zuela:



Goiko bidea, osagaien bidea eta beheko bidea, osagai gabeko bidea. Txorimaloa pasatu ondoren konturatu ziren bide gurutze batean zeudela eta ez zirenez ados jartzen, Argiñano goiko bidetik joan zen eta Pepe beheko bidetik!

Argiñano bi orduz ibili zen bidea jarraituz norbait aurkitzeko asmoz, eta honela izan zen! Marigorringo erraldoi bat aurkitu zuen, eta berari galdetu zion:

-Marigorringo, non aurkitu ditzaket pastela egiteko osagai magikoak? Galdetu zion Argiñanok.

-Ember luzea, bezo luzeak baina ostorik ez

duen zuhaizka batean daude. Zuhaizka horrek zulo bat dauka eta bertan aurkituko dituzu osagaiak!

Bien bitartean Pepek bele beltz bat aurkitu zuen eta beleari galdetu zion:

-Belea, non aurkitu ditzakat pastela egiteko osagaiak? Galdetu zion Pepek.

- Ez dituzu aurkituko, zure lagunak hartu duen bidean dagoen zuhaizka batean daudelako. Baina nahi baduzu tranpa eginez, lortu ahalko dituzu! Begira, nik hegan, bidearen bukaeraraino eramango zaitut. Bertan, ezkutatu egingo zara eta zure laguna datorrenean osagaiak kenduko dizkiozu!

Pepek, baietz esan zuen, oso tranpatia zenez beleak esandakoa egin zuen.

Argiñanok, osagaiak aurkitu zituen eta bidearen amaierara hurbildu zenean.... bat batean Zas! Pepek Argiñanori enbor batez buruan jo eta osagaiak kendu zizkion!

Argiñanok, konortea galdu zuen eta bere onera etorri zenean, Pepek esan zion, zaldi batek buruan jo zuela eta osagaiak uretara erori zitzaizkiola. Pepek esan ziona entzutean hau izan zen Argiñanoren erantzuna:

- Hau zoritxarra, erregeak biok kaleratuko gaitu.

Berriro ere bueltan joan ziren paellero magikoaren gainean. Bide erdian, Artizarra planetan, gelditu egin beharra izan zuten, Pepek txisa egin behar zuelako. Pepe txisa egiten zegoen bitartean, Argiñanori egarria sortu zitzaion eta Peperen motxila hartu zuen, ur botila hartzeko.

Barruan... osagaiak zeuden! Argiñano oso haserretuta zegoen, ezin zuen sinetzi Pepek egin ziona! Pepe txisa eginda bueltatu zenean Argiñanok ez zion ezer esan, plan bat zeukalako.

Arteagara heltzean, Pepe osagaiak erregeari eramaten zegoen bitartean, Argiñanok dena kontatu zien herritarrei. Herritarrak Pepek egin zuena entzutean, protestaka hasi ziren eta dena kontatu zien erregeari.

Azkenean, erregearen eta herritarren artean Argiñano aukeratu zuten: ez zuelako tranparik egin eta zintzoa eta leihala zelako. Pepe lotsa-lotsa eginda herritik alde egin behar izan zuen.

Eta badakizue zer gertatu zen osagaiekin? ba... Argiñanok pastel erraldoi bat egin zuela eta denen artean jan zutela!







MAIDER BENGOETXEA REGADOS
BARRUTIA 6. MAILA.









## Eneko Bernedo Azula

«Niri futbolean jolastea gustatzen zait»

# «Pituflas eta Eneko»

PITUFLAS ETA ENEKO

Bazen behin sorgin bat Pituglas deitzen zena. Oso sorgin bihurria zen. Ilea beltza zeukan eta oso zikina, begiak marroiak, eta sudurra Pinotxok bezalakoa. Sudurraren gainean garatx handi bat zeukan. Pituglas, beti joaten zen bere tunika beltzarekin eta bere leotardo berdeekin. Buruan txapel handi beltz bat zeukan.

Sorgina ez zen bakarrik bizi, berarekin katu bat zeukan, Blaki deitzen zena. Katua oso txikia zen; begiak urdin-urdinak zeuzkan eta aho txikia. Pituglasek ez zeukan lagunik. Orduan sorginak pentsatu zuen magia egitea eta bere katuak hizketan jartzea. Horrela berarekin egoteko lagun bat izango zuen. Sorginak esaten zion bere buruari ona nahi zuela izan eta lagun asko nahi zituela eduki. Eta hori horela izateko pentsatu zuen: “Nik jendeari lagundu nahi diot, eta horrela lagunak izango ditut”. Pituglasek hartu zuen bere erratz magikoa eta hegaz joan zen hemendik.

Herría Gernika deitzen zen. Lehenengo, amona bat bídea pasatzen eta kotxe bat zetorrela ikusi zuen, orduan Pituglasek hartu zuen amona eta hegaz eraman zuen beste alderaino.

Beste egun baten, gizon bat berandu iritsi zen tren geltokira eta trena galdu zuen. Orduan, Pituglasek esan zion montatzeko bere enatzaren gaínean jartzeko eta berak eramango zuela...

Sorgína etxera heldu zen, eta esan zion Blakiri:

- Oso nekatuta nago, jendeari laguntzen egotea egun guztía nekagarría delako. Baína, nik ez dut jendeari laguntzeari utziko, munduan onak izan behar garelako.



200 urte geroago...

Pituglas ea oso zahar zegoen 250 urte zituelako. Sorgínak pila bat urte bizitzen zirelako. Egun batean, pentsatu zuen bere magía eta berak egiten zituen lanak beste pertsona batek jakin behar zituela baita ere eta horrela munduan beti egotea laguntza.

Sorgina astebete egon zen pertsona hori bilatzen eta azkenean topatu zuen. 11 urteko mutiko bat zen, Eneko deitzen zena. Eneko bere etxean zegoen lanak egiten

eta bapatean Pituglas agertu zen bere gelan. Eneko harrituta, gorgortuta geratu zen, harri bat bezala. Eneko ez zen ausartu berbarik egiten eta orduan Pituglas hasi zen hitz egiten:

-Kaixo Eneko, ni Pituglas deitzen naiz eta sorgin on bat naiz.

-Zertan etorri zara hona? -esan zion Enekok beldurtuta.

-Zuri nire magia eta nire lana erakustera etorri naiz, ni oso zaharra naizelako.

Enekok galdetu zion, ea zer magia mota egiten zuen. Gauzak beste gauza batatara bihurtu ahal ditut, hegaz egin ahal dut... esan zion sorginak.

- Baina, nire amak ez dit utziko - esan zuen Enekok.

-Zure amak ezin du jakin magiarena, -esan zuen Pituglasek.

Enekok baietz esan zion, berak magia nahi zuela egin. Eneko ikasten zihoala kalera irteten zen jendeari laguntzen eta gauzak beste gauza batzak bihurtzen, adibidez: Naranja bat piruleta bat bilakatu zen..., eta jendea zoriontsu egiten. Azkenean, biak lagun minak izaten lortu zuten eta betirako gorde zuten beraien sekretua.

# AMAIERA

Eneko-Bernedo